

## IV

### **Dokumentazioa Hego Euskal Herriko goi mailako irakaskuntzan, UPV/EHUtik abiatuta**

Teresa Agirreazaldeg

Kazetaritza Saileko irakaslea, UPV/EHU  
Profesora del Departamento de Periodismo, UPV/EHU

**Laburpena:** Hego Euskal Herrian ez dago ikasketa edota diploma espezifikorik Dokumentazioan. Horrela bada ere, goi mailako irakaskuntza zentroetan ezagutza esparru hori hiru modutan txertatzen da. Lehenengo eta behin, titulazioetan ematen diren irakasgaietan aurkituko dugu. Lizentziaturei eta graduari dagokienez, oso presentzia txikia du, Komunikazio alorreko ikasketetan salbu; doktoregoko programetan, ordea, pisu nabarmenagoa hartzen du. Bigarren bidea, unibertsitateko bibliotekak ikasle zein irakasleentzat eskaintzen dituzten ikastaroak dira. Hirugarren eta azken bidea irakasleak prestatzeko egiturak dira, informazio-teknologiaren ingurukoak batik bat.

**Resumen:** En el País Vasco Sur no existen estudios o diplomas específicos en Documentación. A pesar de ello, esta área de conocimiento se integra de tres maneras en la enseñanza superior del País Vasco Sur. Por un lado, la encontraremos como asignatura de las titulaciones ofrecidas. En lo que se refiere a las licenciaturas y grados, su presencia es escasa, salvo en los estudios de Comunicación; en los programas de doctorado, sin embargo, tiene un peso mayor. El segundo modo de presencia son los cursos que ofrecen las bibliotecas a profesores y alumnos. El tercero y último modo se da en las estructuras para la formación del profesorado, especialmente en las referidas a tecnologías de la información.

#### SARRERA

Lan honen sorrera Baionan emandako hitzaldi bat da: «ARPIST 2013. Biltzar transpiriniotarra. Ikerketarako dokumentazio-tresna eta zerbitzu numeriko edota digitalak. Akitania eta Euskal Herriko lan ildoen trukaketa» ekinbidearen harrera hitzaldia, hain zuzen. Ricardo Etxepare IKER<sup>1</sup>-eko zuzendariak egin zidan gon-

---

<sup>1</sup> IKER-UMR5478 (CNRS, Bordeaux 3, UPPA) eta ARPIST sareak UPPArekin elkarlanean eskainiriko dokumentazioari buruzko zabalkunde eguna. IKER ikerketa gunea euskarari eta euskal testuei buruzko ikerketa gunea bat da, eta CNRSko Michel de Montaigne-Bordele 3-ko eta Errobi eta Aturri aldeko Herrietako Unibertsitateko (UPPA) ikerlari eta irakasleek osatzen dute. IKER UMR izaera duen goi mailako ikerketa gunea da.

bita IKER-ek, CNRSko ikerketa guneak, eta Akitaniako ARPIST<sup>2</sup> dokumentazio sareak elkarrekin antolatu zuten mintegian parte hartzeko. Mintegi horren helburua Euskal Herrian eta Akitanian dauden dokumentazio zerbitzuen arteko ezagutza eta lankidetzaren bultzatzea zen<sup>3</sup>.

## 1. GOI MAILAKO IRAKASKUNTZA HEGO EUSKAL HERRIAN

Goi mailako irakaskuntzan eskaintza zabala dugu Hego Euskal Herrian, bi erkidego autonomoetan (2.825.522 biztanle) bost unibertsitate baitaude: bi unibertsitate publiko —Euskal Herriko Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa— eta hiru unibertsitate pribatu —Nafarroako Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea—. Horrez gain, hainbat ikerketa zentro daude, gehienak unibertsitateei lotuak.



### 1go irudia


Hego Euskal Herriko Unibertsitateak

<sup>2</sup> Akitania eskualdeko delegazioaren dokumentazio sareak (ARPIST) CNRSn, unibertsitatean eta bestelako eskola handi zein EPSTetan ari diren dokumentalistak biltzen ditu. 2003tik, ARPIST sareak lagundurik, DR15-CNRSren lan tresna eta gaitasun teknologikoen misioak eskualdean espazio bat eskaintzen du informazio zientifiko eta teknikoko profesionalak elkarrekin truka ditzaten beren gaitasunak.

<sup>3</sup> Hitzaldia prestatzeko ezinbestekoa egin zait Hego Euskal Herriko unibertsitate guztietatik jasotutako informazioa, eta haietako liburuzain, komunikatzaile eta lagundu didaten pertsona guztiei esker eman nahi dizkiet.

Guztira, 77.875 ikasle, 11.247 irakasle eta milaka langile ari dira horietan. Ikasle gehienak bertakoak badira ere, badaude beste hainbat lurraldetatik etorriak: Ipar Euskal Herriatik, Estatu espainiarretik, Europako beste herrialde batzuetatik (Erasmus sarearen bidez, adibidez), Latinoamerikatik, etab.

2013an, 45.035 ikasle, 5.676 irakasle eta 1.874 langilerekin, UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitatea da Euskal Herriko Unibertsitate handiena, eta bigarrenak baino lau bider ikasle gehiago ditu.



### 2. irudia

Ikasleen banaketa Hego Euskal Herriko unibertsitateetan

## Unibertsitateak datuetan



	UPV/EHU	Unib. Navarra	Deusto	upna	MONDRAGON
<b>IKASLEAK</b>	45.035	11.362	9.967	7.500	4.011
<b>IRAKASLEAK</b>	5.676	906	2.345	930	309
<b>GRADUAK</b>	67 (85)	43	19	18	12
<b>MASTERRAK</b>	105	37	40	27	13
<b>DOKTOREGOAK</b>	71	21	7	20	3

### 3. irudia

Hego Euskal Herriko unibertsitateak datuetan: ikasleak, irakasleak eta diplomak

Bestalde, esan beharra dago Hego Euskal Herriko unibertsitate guztiak buru-belarri ari direla Europatik etorri den Boloniako modelo ezartzen. UPV/EHUko Gizarte eta Zientzietako Fakultatean, adibidez, lizentziatura zaharren azken urtea izan da 2013a; izan ere, laugarren maila soilik eman da. Beraz, 2013-2014an Gradu izena duten ikasketa berriak baino ez dira emango.

Euskal Herriko Unibertsitateak 67 gradu eskaini ditu 2013an (85 gradu errepikatu egin dira campus guztiak kontuan hartuz gero), 105 master eta 71 doktorego.

## 2. DOKUMENTAZIO IKASKETAK

Zentro eta tituluen oparotasunaren ondoan, Dokumentazioari buruzko ikasketen egoera guztiz kontrakoa da. Lehenengo eta behin, ez Nafarroan ezta Euskal Autonomia Erkidegoan ere ez dago goi mailako ikasketarik dokumentazioko, biblioteketako edota artxiboetako adituak prestatzeko. Beraz, ez dago urtero-urtero dozenaka edota ehunka diplomatu berri Euskal Herriko dokumentazio zentro, liburutegi, administrazio, enpresa edota irakaskuntza zentroetan arituko denik. Ez dago ikasketarik eta, ondorioz, ezta ikerketa lanak egiteko ikertzailerik, ezta irakaslerik ere. Irakaskuntza eta ikerketa lanak ezinbestekoak dira, ordea, Dokumentazioaren corpus teorikoa indartzeko, eta, modu zuzenean edota zeharkakoan, administrazio, enpresa edota ikasketa zentroetako eguneroko jarduna hobetzeko.

Hiru bakarrik izan dira arlo honetan Hego Euskal Herrian eskaini izan diren diplomak. Euskal Herriko Unibertsitateko Historia Fakultatean, *Bibliotekonomia eta Dokumentazioaren* master bat izan zen 1990etik 1992ra; eta, fakultate berean, *Informazioaren kudeaketaren* masterra eskaini zuten 2001etik 2005era, zeinak Bibliotekonomia, Artxibistika eta Dokumentazioa hartzen zituen.

Deustuko Unibertsitateko Filosofiako eta Letretako Fakultateak espezializiorako diploma bat eskaini zuen 1991tik 2010era arte: Ondare Historikoen, Artxi-boen, Liburutegien eta Museoen Dokumentazioa eta Kudeaketa.

Estatu espainiarrean ugaria da Dokumentazio alorreko ikasketen eskaintza, eta diplomaturak, lizentziaturak, graduak eta graduondokoak topa daitezke Barzelonan, Madrilan, Salamancan, Granadan, Murtzian... Eskaera handia izan zen 2000. urtera arte; geroztik, krisi batean murgilduta daude ikasketak, eta ikasleak asko gutxitu dira. Neurri batean, Dokumentazioak ikusgarritasun arazoak dauzka Espainian, eta ez du jakin teknologien bultzakada aprobetxatzen ahalik eta eremu gehienetara hedatzeko. Gabezia horrengatik, informazioaren kudeaketan sortzen ari diren esparru berriak beste profesional batzuek betetzen dihardute.

Gurean, Dokumentazio alorreko profesional gazteenek Euskal Herritik kanpo egin dituzte ikasketa espezifikoak. Helduenak beste ikasketa batzuetako goi mailako diplomadunak dira, ordea, eta ikastaroak eginez eta lanean bertan trebatu dira Dokumentazioan.

2009an egin genuen ikerketa baten arabera<sup>4</sup>, Euskal Herriko dokumentazio zerbitzuetan lan egiten duten profesionalen %75ek unibertsitate ikasketak dituzte, eta ikasketa horietatik %10 graduondokoak dira, %54 lizentziaturak eta %11 diplomaturak. Ikasketa espezifikoei erreparatuta, %56 graduondokoak dira, %11 lizentziaturak eta %36 diplomaturak.

Hego Euskal Herrian Dokumentazioaren alorreko ikasketa espezifikorik ez dagoenez, goi mailako irakaskuntzan Dokumentazioak zer presentzia duen aztertzeko, atalka ibili beharko dugu non dagoen eta nola zabaltzen ari den jakiteko.

### 3. DOKUMENTAZIOA IRAKASGAIA GRADUETAN

#### 3.1. Dokumentazioa Informazio eta Komunikazio Zientzietako fakultateetan

*UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitatean*

*Dokumentazioa* irakasgaiak oso ibilbide luzea du Informazio eta Komunikazio Zientzietako fakultateetan. Hala, 1977an, Leioako campusa martxan jarri zenean, jada agertzen zen ikasketa planetan. Hasieran, karrerako azken urtean ematen zen irakasgaia, hau da, 5. mailan; gero, 1990etik aurrera, gazteleraz irakasteaz gain, euskaraz ematen ere hasi zen. 1991tik, plan berria martxan jarri zenetik, lizentziaturak lau urtera mugatu ziren. Izena moldatuta, *Dokumentazio informatiboa* enborreko irakasgai bihurtu zen, 2. mailakoa, Kazetaritza, Ikus-entzunezko eta Publizitate eta Harreman Publikoetako ikasketetan.

Hamarkada bat geroago, Kazetaritzako lizentziaturan hautazko irakasgai espezifikoko bat ere eskaintzen hasi ziren 4. mailan: *Dokumentazioa komunikabideetan*. Otsailetik maiatzera ematen zen irakasgaia, astean hiru ordu teoriko zein praktikotan, eta, urte batzuk salbu, beti euskaraz.

2010ean, Boloniako Plan berriak ezartzen hasi ziren UPV/EHUko Informazio eta Komunikazio Zientzietako Fakultatean. 2013-2014ko ikasturtean lehen aldiz emango da laugarren maila, titulu berriak guztiz ezarrita eta aurreko lizentziaturako kurtsoak desagertuta. Beraz, 2014an Boloniako plangintzari lotutako lehen promozioa irtengo da. Prozesu horretan, lizentziaturak gradu bilakatu dira. Irakasgaiak *Dokumentazio informatiboa* izena utzi eta *Dokumentazio iturrien kudeaketa*<sup>5</sup> izena hartu du. Bigarren mailan mantendu dute, enborrekoa da, eta beti ere Kazetaritza, Ikus-entzunezko eta Publizitate eta Harreman Publikoetako graduatan ematen da, euskarazko eta gaztelerazko taldeetan.

Irakasgaiak 6 ETCS kreditu ditu, hau da, lau ordu teoriko eta praktiko astean, bigarren lauhilekoan. Boloniako Planarekin, irakasgaiak ikaslearen lanean jarri du

<sup>4</sup> Agirreazaldeg, T.; Camacho, I. (ed.). *Dokumentazio zerbitzuak Euskal Herriko komunikabideetan*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2009. 19-40 orr.

<sup>5</sup> *Dokumentazio iturrien kudeaketa* irakasgaiaren egitaraua UPV/EHUko webgunean <<http://tinyurl.com/q96zym6>>

indarra, praktikek hartu dute lehentasuna. Alde horretatik, nahiz eta Euskal Herriko Unibertsitateko Komunikazio ikasketetan ikasle taldeak handiak izan —sari 70-100 lagunekoak—, talde txikietan eskaintzen dira praktikak —hogeita bost lagun gela multimeditan eta hamabost lagun irrati edota telebistako laborategietan—. Boloniarekin, irakasgaiaren helburuak ikasleek lortu behar dituzten kompetenzien bidez azaltzen dira. Eta hona hemen azken berrikuntza izango dena: gradua lortzeko, ikasleek amaierako lan bat egin eta epaimahai baten aurrean defenditu beharko dute.

Informazioa eta dokumentazioa eskuratzeko eta lantzeko oinarrizko trebakuntza eskaini da hasieratik aipaturiko irakasgaietan, gaur egun *alfabetatze informazionala* deritzon horren barruan; halaber, komunikazio iturri espezializatuak erabiltzen ere irakatsi da, komunikazioaren alorreko lanbideetan dokumentazioak duen bitartekaritza funtzioa kontuan hartuta. Zoritxarrez, plan berriarekin desagertu egin da Kazetaritzako lizentziaturako 4. mailan eskaintzen zen *Dokumentazioa komunikabideetan* hautazko irakasgai espezializatua; 2013an eman da, beraz, azken aldiz.

#### *Mondragon Unibertsitatean*

Mondragon Unibertsitatean, Ikus-entzunezko Komunikazioa graduan, *Kompetentzia digitalak eta informaziozkoak*<sup>6</sup> irakasgaia eskaintzen dute, 1. mailan. Oinarrizko prestakuntzaren barruan dago, eta 6 ECTS kreditu ditu. Egitarauan, alfabetatze digitala, informazio iturrien kontsulta eta kudeaketa, informazio kompetentziak eta kompetentzia digitalak, eta abar agertzen dira, baina inon ez da aipatzen *Dokumentazio* hitza.

#### *Nafarroako Unibertsitatean*

Kazetaritza graduan soilik irakasten da Dokumentazioa Nafarroako Unibertsitatean; hala, bada, Ikus-entzunezko edota Publizitate eta Harreman Publikoak graduetan ez da eskaintzen: *Kazetaritzako dokumentazioa*<sup>7</sup> irakasgaia 2. kurtsoan irakasten dute, bigarren seihilekoan. Egitarauan honela deskribatzen da irakasgaia: «Komunikabideetako Dokumentazioaren oinarri teoriko eta elementu praktikoen sarrera da». Eta, batik bat, Interneteko kazetaritzako ikerketa tresnak ikasteko bali du. 3 ECTS kredituko irakasgaia da, hau da, ikasleak 75 orduko lana izango du (klaseak, lanak, irakurketak...). Irakaslea ziberkazetaritza eta konbergentzia teknologiako gaietan aditu ezaguna da, eta irakasgaiaren praktikak bi liburuzainek ematen dituzte<sup>8</sup>.

<sup>6</sup> *Kompetentzia digitalak eta informaziozkoak* <http://tinyurl.com/pb4vuns>

<sup>7</sup> *Kazetaritzako dokumentazioa* <http://tinyurl.com/p2yehuv>

<sup>8</sup> Liburuzainen parte hartze zuzena irakasgaien alor praktikoetan, beste hainbat irakasgai eta diplomatan errepikatzen da Nafarroako Unibertsitatean. Baita Nafarroako Unibertsitate Publikoan ere, Zuzenbidean edota Osasun ikasketetan, adibidez.

### 3.2. Dokumentazioa irakasgaia beste gradu batzuetan

Nahiz eta *Dokumentazio* izena ez erabili, ezagutza esparru horrekin lotura zuzena duten beste irakasgai batzuk sakabanatuta daude hainbat titulaziotan; alde teknologikoa lantzen duten ataletan, adibidez. Horien artean, bat aipatuko dugu: *Information Management*, Deustuko Unibertsitatean ematen den irakasgaia, zeina Hizkuntza Modernoak, Hizkuntza Modernoak eta Kudeaketa, Giza Zientziak eta Euskal Filologia graduetan eskaintzen den.

Hizkuntza Modernoak eta Kudeaketa graduan, honela aurkezten dute irakasgaia: «Hau da informatika alorreko hirugarren eta azken irakasgaia, eta informazioaren eskuratzeko eta kudeaketa eraginkorrerako Giza Zientzietako alorretan erabilgarriak diren tresnak, langaiak eta teknikak lantzen ditu, baita katalogo bibliografiko, artxibo edota sareko beste errekurtso digitalen kontsulta eta berrerabilera ere». Lau irakasgai osatzen dute egitaraua: 1) Informazioaren kudeaketa, 2) Datuak eta metadatuak, 3) Marka-orriak eta 4) Batzaileak.

## 4. DOKUMENTAZIOA MASTERREKO IKASKETETAN

Dokumentazioaren irakaskuntza nahiko ohikoa da graduondokoetan. Helburuak hauexek izaten dira: iturri dokumentalak ezagutaraztea, ikerkuntzan eta graduondoko memoriak egiterakoan ezinbesteko bibliografiak eta aipuak osatzen erakustea, eta horretarako dauden programa informatikoak zabaltzea.

Mondragon Unibertsitatean, 2010etik *Informazio-kompetentziak: informazio zientifikoa eta bibliografia-kudeaketa* irakasgaia eskaintzen dute, bi master ofizial hauekin: Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaniztunetan (Ekomu)<sup>9</sup> eta Hezkuntza erakundeetako berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa (Berrimet)<sup>10</sup>, 5 ECTS krediturekin.

Lerro beretik, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Komunikazioa unibertsitate masterrean *Iturri dokumentalak eta ikerketarako erreferentzia-teknikak* eskaintzen da. *Memoria egiteko lantegia*<sup>11</sup> irakasgaia proposatzen dute, 4,5 ETCS kreditukoa. Bestalde, *Self media, web 2.0 eta memoria digitalaren kudeaketa*<sup>12</sup> 3 ETCS kredituko irakasgaian komunikabideetako dokumentu ekoizpena kontsultatzeko tresnak eta biltegiak aztertzen dira, bai eta dokumentazio informatiboaren ikerketa lanak ere.

<sup>9</sup> Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaniztunetan (Ekomu) <http://tinyurl.com/q9v3lm8>

<sup>10</sup> Hezkuntza erakundeetako berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa (Berrimet) <http://www.mondragon.edu/eu/ikasketak/masterra/berrimet/>

<sup>11</sup> *Ikerketarako erreferentziazko iturri dokumental eta teknikoak. Memoria egiteko lantegia* <http://tinyurl.com/l73ms6y>

<sup>12</sup> *Self media, web 2.0 eta memoria digitalaren kudeaketa* <http://tinyurl.com/k2oyx9x>

## 5. DOKUMENTAZIOA ZEHARKAKO HEZKUNTZA KONPETENTZIZIETAN

Unibertsitate Espainiarren Errektoreen Konferentziak (CRUE) bultzatuta, Europako goi mailako hezkuntza esparruan ahaleginak egiten ari dira gehien eskatzen diren konpetentzietan kreditazio sistemak eskaintzeko. Halaber, CertiUni<sup>13</sup> egitasmoak, Alfin (alfabetatze informazionala) eta CI2 konpetentzia informatiboa eta informazioena biltzeko.

Nafarroako unibertsitateetan, publikoan zein pribatuan, ohikoa da liburuzainak arduratzea irakasgaien alde espezifikoaz. Halaber, liburuzain tematikoak eta gainontzekoak desberdindu egiten dira Nafarroako Unibertsitatean; lehenengo taldean 17 eta bigarrenen 25 zeuden 2012an<sup>14</sup>.

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan, konpetentzia informatikoak, dokumentalak eta ikaskuntzako metodologiakoak curriculumean txertatzeko modelo bat ari dira inplementatzen duela lau urtetik, hango bibliotekaren parte hartzearekin.

*Prestakuntza zeharkako konpetentzietan* izena du irakasgaiak. Modeloa adostu ondoren, irakasleek irakasgai metodologikoetan landuko dituzte aipatutako konpetentziak, baita ikasleek urtero egin behar duten lanean ere (*Proiektuetan oinarritutako metodologia eta arazoetan oinarritutako ikaskuntza*). Maila guztietan eskaintzen da irakasgai hori, lehenengotik laugarrenera, sei hilabete bakoitzean, hamabi orduko klaseak (horri gehitu behar zaio ikaslearen lana, klase orduen bikoitza dena).

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatean ere saiatzen ari dira zeharkako konpetentzien irakaskuntza ezartzen titulazio osoan.

## 6. BIBLIOTEKEK ESKAINTZEN DUTEN PRESTAKUNTZA

Hego Euskal Herriko unibertsitateetako bibliotekak ahalegin handia egiten ari dira azken urteetan prestakuntza eskaintzeko. Ikastaroak ematen dituzte graduetan, batik bat, lehenengo mailan, baina baita doktorego eta master diplometan ere, kasu horietan ikerkuntzara bideratuta sarri. Irakasleentzako ikastaroak ere izaten dira<sup>15</sup>.

Hona hemen 2012an UPV/EHUko liburutegiak eskaini zituen kurtsoak:

---

<sup>13</sup> <http://www.alfared.org/>

<sup>14</sup> Serrano-Vicente, Rocío; Itúrbide-Tellechea, M.<sup>a</sup> Arántzazu. «Resultados de la formación de las CI2 en la Universidad de Navarra. Un enfoque gradual». *Jornadas CRAI* (10, 2012, Logroño). <http://www.slideshare.net/unavbiblioteca/competencias-informacionales-crailogroo2012>

<sup>15</sup> Euskal Herriko Unibertsitateko liburutegiak eskaintzen duen prestakuntza soilik jarri dugu hemen. Gainerako liburutegiek eskaintzen dutena sarean kontsulta daiteke. Nafarroako Unibertsitateko liburutegiak 2012an eskainitako prestakuntza kontsultatzeko: <http://www.unav.es/biblioteca/presentacion/memoria.html>



*Lehen mailako ikasleentzako ikastaroak*

- Bibliotekarako sarrerako ikastaroa. Saio bakoitzak praktika espezifiko bat du, ikasleen karreraren arabera.
- OPAC: OPACen bitartez egindako bilaketak eta zerbitzuak.
- Nola aipatu eta osatu bibliografia bat.
- Zer dira eta zertarako balio dute bibliografia kudeatzaileak.
- Datu baseak (CSIC, Dialnet...). Saio bakoitzak praktika espezifiko bat du, ikasleen karreraren arabera.
- Bibliotekako webgunea, baliabide elektronikoak, datu baseak.

*Ikasle aurreratuagoentzako ikastaroak*

Hirugarren eta laugarren mailako ikasleentzat, baita graduondokoa egiten dutenentzat ere. Ikastaro guztiek praktika saio bana dute.

- Bibliotekako zerbitzuen aurkezpen orokorra, irakaskuntza eta ikerkuntzarako euskarri modura.
- Baliabide elektronikoak eta Millennium.
- Bibliografia kudeatzaileak: Refworks.
- Berariazko datu baseak.
- ADDI, UPV/EHUko biltegi instituzionala.
- Encore.
- Hemerotekako datu baseak.
- Informazio konpetentziak graduondokoentzat.
- Scifinder.
- Eskola liburutegiak (Irakasle Eskolako ikasleentzat).
- Erdi Aroko eskuizkribuak eta faksimileak.

*Irakasleentzako ikastaroak*

- ADDI, UPV/EHUko biltegi instituzionala.
- Bibliografia kudeatzaileak: Refworks.
- Baliabide elektronikoak eta Millennium.
- ADDIri buruzko lantegia, 2012ko Open Access Week-en barruan.
- Ikerkuntzaren ebaluazioa (irakasle zein ikerlarientzat).

**7. IRAKASLEENTZAKO PRESTAKUNTZA**

Irakaskuntzarako plataformek, kudeaketa digitalak eta beste hainbat berrikuntza teknologikok lehen lerroan jarri dute irakasleen trebakuntza eta gaurkotze beharra (baita, noski, gainontzeko langileena ere). Unibertsitateetan ugaritu egin dira prestakuntza zerbitzuak. Euskal Herriko Unibertsitateak irakasleentzako lau prestakuntza programa ditu: Ehundu, Eragin, Behatu eta Fopu.

*Ehundu:* Honen bidez, diru laguntza ematen zaie zentroei graduen antolakuntzari begira, koordinatzaileen trebakuntzarako. (UPV/EHUko gradu berrien curri-

culum garapenerako konpromiso dokumentua sinatzeko deialdia, 2013ko Ehundu programa —hirugarren edizioa—).

*Eragin:* Irakasleak irakaskuntzarako metodologia aktiboetan prestatzeko programa da; irakasle bakoitzak eskatu behar du laguntza, eta metodologia berriak ikasteko da. 2012an, 71 irakaslek hartu zuten parte.

*Behatu:* Ikasketa berrikuntzarako mugikortasun deialdiak, metodologiak ikasteko asmoz, beste unibertsitate batzuetara joateko diru laguntzak ematen ditu. 2012an, 18 irakaslek hartu zuten parte.

*Fopu:* Bost trebakuntza arlotan eskaintzen dira ikastaroak: 1) Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak, 2) IKT, 3) Ikerkuntza, 4) Norberaren garapena eta 5) Konpetentzia linguistikoak. 2012an, 21 ikastaro eskaini ziren. 2011n, bigarren seihila-betekoan, 13 ikastaro eman ziren, eta 284 pertsona kreditatu ziren.

## 8. LIBURUZAINEN PRESTAKUNTZA

Gaur egungo egoera aldakorrean, liburuzainek ere behar-beharrezkoa dute prestakuntza, beren alorreko lanak modu egokian aurrera ateratzeko. Zerbitzu guztietan ematen da prestatzeko aukera, lanbide elkarteek antolatzen dituzten ikastaroen bidez edota jardunaldi edo kongresuen bidez<sup>16</sup>.

## 9. ONDORIOAK

Hego Euskal Herriko unibertsitateetan Dokumentazioa izena duen diplomarik ez dago, eta arlo horretako irakasgai espezifikoak ere bakanak dira. Edukiak, ordea, curriculumaren barruan, zabaltzen ari dira konpetentzia metodologiko eta teknikoetan, eta curriculumetik kanpo, berriz, bibliotekek edota unibertsitateko beste atal batzuek ikasleei zein irakasleei ematen dieten prestakuntzan.

---

<sup>16</sup> Sanz-Santacruz, V.; Serrano-Vicente, R.; Iturbide-Tellechea, M.A. (2013). «La estancia en bibliotecas extranjeras como instrumento de formación bibliotecaria: la experiencia de la Universidad de Navarra (2003-2010)». *Revista Española de Documentación Científica*, 36(1):en001. doi: <http://dx.doi.org/10.3989/redc.2013.1.896>